Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Presidencia e Igualdad
Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Servicio de Comunicación
Komunikazio Zerbitzua
Avda. Carlos III, 2-planta baja
Karlos III.a. etorb., 2-beheko solairua
31002 PAMPLONA / IRUÑA

# PROFESIONAL GUNEA KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA

# [APSC] - Jarraibideak

## Aurkibidea

**ZERBITZUAN ALTA EMATEA**

1. Alta-eskaera ..... 2
1.1. Komunikabidea erregistratuta dago ..... 3
1.2. Komunikabidea oraindik ez dago erregistratuta ..... 4
1.3. Freelance kazetaria ..... 5
2. Komunikabidearen arduradunak kazetaria akreditatzen du ..... 6
3. Profesional Gunerako sarbidea ..... 8
3.1. “Nire datuak” editatzea ..... 9
3.2. "Nire harpidetzak" hautatu edo editatzea ..... 10


# 1. Alta-eskaera

Hau da sartzeko URLa:

https://www.navarra.es/eu/web/area-profesional-servicio-comunicacion/




Kazetari gisa alta emateko eskaera edozein erabiltzailek egin dezake, sarbide publikokoa baita. Normalena da oraindik komunikazio-zerbitzuaren Profseional Gunean alta emanda ez dagoen kazetariak berak egitea eskaera hori.





Alta eskatzeko prozesu honetan hiru kasu gerta daitezke:

- Kazetaria lehendik erregistratua dagoen komunikabide batekoa da.
- Kazetaria oraindik erregistraturik ez dagoen komunikabide batekoa da.
- Kazetaria freelance da.


## 1.1. Komunikabidea erregistratuta dago

Alta eskatzen duen kazetaria Komunikazio Zerbitzuan erregistratuta dagoen komunikabide batekoa bada, komunikabide hori hautatu beharko du zerrendatik, eta nahitaezko gainerako eremuak bete.




Eskaera amaituta, kazetaria Zain egoeran geratuko da

Gainera, kudeatzaileek eta komunikabidearen arduradunak jakinarazpen bat (email bat) jasoko dute, alta-eskaera baliozkotzeko edo atzera botatzeko.





Eskaera baztertzen bada, Zain egoeran zegoen kazetaria sistematik desagertuko da. Eskaera, balidatzen bada, kazetaria Onartuta egoerara pasatuko da.

Bi kasuetan, balidatu zein baztertu, kazetari eskatzaileak jakinarazpen bat (email) jasoko du.

## 1.2. Komunikabidea oraindik ez dago erregistratuta

Alta eskatzen duen kazetaria Komunikazio Zerbitzuan ez dagoen komunikabide batekoa bada, zerrendako *Aldi baterako komunikabidea* aukera hautatu beharko du, eta dagokion komunikabidearen izena eman beharko du. Eta, ondoren, nahitaezko gainerako eremuak bete.





Eskaera amaitu ondoren, kazetaria Komunikabidea baliozkotzeren zain egoeran geratuko da.

Gainera, kudeatzaileek jakinarazpen bat (email bat) jasoko dute, Komunikazio Zerbitzuan komunikabidea existitzen ez den alta-eskaera baten berri emateko.

Datu-basean agertzen ez zen komunikabidea erregistratu ondoren, kazetaria Zain egoerara pasatuko da.

Ondoren, sistemaren kudeatzaileek eta komunikabidearen arduradunak jakinarazpen bat (email bat) jasoko dute, alta-eskaera baliozkotzeko edo atzera botatzeko.





Baztertuz gero, Zain egoeran zegoen kazetaria sistematik desagertuko da, eta, baliozkotuz gero, kazetaria Onartuta egoerara igaroko da.

Bi kasuetan, balidatu zein baztertu, kazetari eskatzaileak jakinarazpen bat (email) jasoko du.


## 1.3. Freelance kazetaria

Kazetaria freelancea bada, *Freelance* komunikabidea hautatu beharko da dagokion zerrendatik, mota horretako kazetariak biltzen dituelako.




Eskaera amaituta, kazetaria Zain egoeran geratuko da.

Ondoren, Komunikazio Zerbitzuak jakinarazpen bat (email) jasoko du, alta-eskaera baliozkotzeko edo atzera botatzeko.





Baztertua izanez gero, Zain egoeran zegoen kazetaria sistematik desagertuko da, eta, balidatua izanez gero, kazetaria Onartuta egoerara igaroko da.


Bi kasuetan, balidatu zein baztertu, kazetari eskatzaileak jakinarazpen bat (email) jasoko du.

# 2. Komunikabidearen arduradunak kazetaria akreditatzen du

Kazetari baten akreditazio-eskaera komunikabidearen arduradunak ere egin dezake, akreditazioa duten kazetariak kudeatzeko ataletik.





Prozesua hasteko, sakatu "Sortu kazetaria" botoia.




Sortu eta gero, kazetaria Zain egoeran geratuko da.

Gainera, sistemaren kudeatzaileek eta sortze-prozesuan hautatutako komunikabidearen arduradunak jakinarazpen bat (email bat) jasoko dute, alta-eskaera hori baliozkotzeko edo atzera botatzeko.





izanez gero, Zain egoeran zegoen kazetaria sistematik desagertuko da, eta balidatua izanez gero, kazetaria Onartuta egoerara igaroko da.

Bi kasuetan, balidatu zein baztertu, eskatzaileak (kudeatzaile bat izan edo sorkuntzan hautatutako komunikabidearen arduraduna izan) jakinarazpen bat jasoko du (posta elektronikoa).

# 3. Profesional Gunerako sarbidea

Komunikazio Zerbitzuak Profesional Guneko alta baliozkotu ondoren, sartu erlaitzatik sar zaitezke (ziurtagiri digitalarekin edo pasahitzarekin).







Sartu ondoren, ongietorri-gune batera pasatzen da, eta haren goiko aldean menua aktibatzen da, gainerako funtzionalitateekin.

Gainera, funtzionalitate horiek guztiak goiko menuan eskura daitezke.





## 3.1. “Nire datuak” editatzea

Goiko menuan dagoen "Nire datuak" atalean, kazetari akreditatuak bere datu pertsonalak editatu ahal izango ditu.




## 3.2. "Nire harpidetzak" hautatu edo editatzea

Goiko menuan dagoen "Nire harpidetzak" atalean, akreditatutako kazetariak aukeratu ahal izango du zein buletinetan harpidetu nahi duen eta jakinarazpenak zer teknologia-motaren bidez jaso nahi dituen, bai eta aurreko hobespenak editatu ere.




Harpidetzak eta jakinarazpenak aukeratu ondoren, baldintza orokorrak eta pribatutasun-politika onartu behar dira aldaketak gordetzeko.